



Arartekoaren 2016R-1744-15 Ebazpena, 2016ko ekainaren 27koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio kirol hastapeneko unitateetako irakaskuntza jardueretan adingabeek parte har dezaten aukerak zabaltzeko neurriak har ditzan.

Aurrekariak

1. Errenteriako 8 urteko haur baten aitak erakunde honetara jo zuen. Adierazten zuenez, adingabea ikasturtearen hasieratik entrenatzen egon zen bere herriko "futbol-eskola" batean, bigarren hiruhilekora arte. Izan ere, une hartan, eskola horrek jakinarazi zion, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ildoak jarraituz, ezin zuela entrenatzen jarraitu, ez zegoelako bere ikastetxeko kirol anitzeko jardueretan inskribatuta eta horietan parte hartzen ez zuelako. Aita horren ustez, horrela, aldundiak bere semeak aisialdi- eta kirol-aukera batez gozatzea baldintzatzen zuen modu bidegabean. Gainera, jarduera horretaz gozatzen zuen ordura arte, inolako arazorik gabe.
2. Kexagileak behin baino gehiagotan azaldu du gai hau foru erakundearen aurrean, bai ahoz bai idatziz. Horrela, baimena eskatu izan du bere semeak futbol-eskolan jarraitu ahal izateko. Izan ere, beste kirol bat egiten zuen (judo), eta ordutegiak bateraezinak ziren. Gainera, eskolaz kanpoko jarduera gehiegi egiten zituen eta, lan arrazoiengatik, gurasoak ezin ziren bere bila joan ikastetxera kirol anitzeko saioak bukatzean.
3. Egiatzatu ahal izan genuenez, kexagilearen idazkiak erregistratuta zeuden aldundiaren kexa- eta iradokizun-sisteman. Bestetik, aldundiak 2015eko martxoaren 11ko eta 25eko eta maiatzaren 14ko idazkien bidez erantzun zion; idazki horietan justifikatzen zuen eskaera ukatzea, urriaren 19ko 63/2007 Foru Aginduan oinarrituz. Agindu horren bidez, eskola ikasleentzako kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzen da, eta otsailaren 25eko 69/2008 Foru Aginduak hori garatzen du. Araudi horretan oinarrituz, administrazioak adierazi zion ez zela posiblea, adin horietan, ikasleak futbol-eskola batean izena ematea parte hartu gabe eta aldi berean bere ikastetxeko eskola-kirolean egotea. Izan ere, arauan ez da aurreikusten betekizun horretarako salbuespenik.
4. Arartekoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Sailera zuzendu zen; horri adierazi genion beharrezkoa dela konponbide bat bilatzea horrelako kasuetan dauden familientzat, azaldutako araudiaren filosofia mantentzea gorabehera. Era berean, hori guztia aztertu ahal izan genuen erakunde honetako langileek kiroleko foru zuzendariarekin eta eskola-kiroleko talde tekniko arduradunarekin 2015eko amaieran izandako bilera batean.
5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Sailak 2016ko apirilaren 12ko idazkiaren bidez erantzun zuen. Horrek, gorago aipatutako araudiaren izateko arrazoia azaldu ostean, kexa hau eragin zuen baldintzaren





eskaera mantentzen du. Horren arrazoiak ebazpen honen hurrengo atalean azalduko ditugu, ez errepikatzearren. Halaber, administrazioak adierazi du ez dituela jaso interesdunarekin izandako komunikazio horiek.

6. Erantzun hori jasota, Arartekoak haren esku-hartzeari amaiera ematea erabaki du honako ebazpen hau emanaz. Ebazpena ondoko gogoetetan oinarritzen da.

Gogoetak

1. Erakunde honek jakin badaki zer garrantzia duen haurrentzako kirol teknifikazioaren eskaintza eskola-kirolarekin koordinatuta egoteak eta hala izatearekin ados dago. Hala, adin horietan kirol modalitateen eta ibilbideen arteko nolabaiteko oreka lortu nahi da eta adingabeek goizegi kirol bat aukeratu dezaten saihestu nahi da, izan ere, horrek beste kirol batzuk ezagutzeko aukera galarazten du eta, horrenbestez, ez dute kirola jolas eta balioak ikasteko aukera gisa ulertuko.

Hala ere, ez du ematen hori denik kexagilearen semearen kasua; izan ere, adierazi du haren nahia hauxe besterik ez zela: bere semeak entrenamenduetara joateko aukera eduki zezala, egun egiten dituen jarduerak eskolaz kanpoko ekintza honekin osatzeko modu gisa. Eskola-kiroleko ordutegiak bateraezinak dira adingabeak parte hartzen duen jarduerekin, eta kontuan hartuta garraiorik ez dagoela eskatzen zaion betekizuna betetzeko dagozkion kirol anitzeko jarduerak bukatzean, eskatu zuen jarduera horiek egiteak beste kirol jarduera batzuetan parte hartzea ez eragozte, futbol-eskola bezalaxe. Izan ere, futbol-eskolaren ordutegiak ondo datozkio.

Administrazioa jo zuen aurrekarietan azaldutako terminoetan; horrela, erakunde honek proposatu zion elkarrekin bideak bilatzea, gai hau arautzen duten dekretuak urratu gabe, eta horiek bultzatzen dituen filosofia mantenduz, egoera espezifikoetarako arrazoizko konponbide bat emateko. Adibidez, interesdunak aldundiari jakinarazitakoa. Zentzu bereko adierazpenak egin zituzten erakunde honetako langileek kiroleko foru zuzendaritzarekin izandako zuzeneko bileran; bertan, gai hau eta beste batzuk aztertu ziren.

2. Hausnarketa honetarako egiazko oinarri gisa, Arartekoak bere idazkian aipatu zuen foru erakundeak kexaren sustatzailearekin izandako komunikazioen edukia. Komunikazio horietan, batetik, bere kasuko egoera bereziak kontuan hartzeko eskaera islatzen zen. Bestetik, administrazioaren erantzuna jasotzen zen; hori guztia, ebazpen honen bigarren eta hirugarren aurrekarietan adierazitako terminoetan eta datetan.

Hala eta guztiz ere, erakunde honek interesdunaren datuak eta komunikazio horiek egin ziren datak adierazten bazituen ere, sailak Arartekoari emandako erantzuna hasten du, adieraziz ez dituela horiek jaso eta ez duela horien edukia ezagutzen. Beraz, apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretura jotzea ezartzen da;





horren arabera, erregistroa, arreta eta jarraipena arautzen dira, foru aldundiak garatutako politika publikoak hobetzeko, horiek zuzenduta dauden herritarrekin egiaztatuz. Horri dagokionez, 17. artikulua haxe ezarri du:

17. artikulua. Jasotako kontsulten, kexen, iradokizunen eta eskaeren jarraipena.

1. Hiru hilean behin, departamentu bakoitzeko idazkaritza teknikoak aurreko hiruhilekoan aurkeztutako eskaera, kexa eta iradokizunei buruzko txosten bat egingo du, eta, baita, emandako erantzunei eta hartutako neurriei buruz ere. Txostena Zerbitzu Publikoen Kalitate Zuzendaritza Nagusira igorriko da.

2. Zerbitzu Publikoen Kalitate Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuek, Foru Administrazio guztian jasotako eta tramitatutako eskaerei, kexei eta iradokizunei buruzko urteko memoria egingo dute, aurreko paragrafoan aipatutako txostenetan oinarrituta. Halaber, antzeko kexak behin eta berriz aurkezteagatik edo iradokizunen garrantziagatik zerbitzuen alde jakin batzuk hobetzeko tratamendu orokorra beharrezko iritzirik, okerrak zuzentzeko eta zerbitzuak hobetzeko hartutako neurriak ere jasoko ditu urteko memoriak. Memoria Diputatuaren Kontseilura igorriko da, Foru Administrazioaren Kalitaterako foru diputatuaren bitartez.

Helburu horiek lortzea oso zaila izango zen administrazioak, praktikan, jasotako, izapidetutako eta erantzundako iradokizunak eta kexak jasoko ez balitu. Dirudenez, hori gertatu da kasu honetan, administrazioaren erantzunaren eta Arartekoaren aurrean aurkeztutako kexarekin batera erantsitako dokumentazioaren konparaziotik ondorioztatzen denez; horrek interesdunaren eta sailaren arteko komunikazioen kopia hartzen zuen barne. Horretan, azaldutako araudiak xedatutakoaren arabera, horietako bakoitzak foru erakundean duen erregistroko erreferentzia-zenbakia jaso da.

Arrazoi beragatik, puntu honetan komeni da gogoratzea euskal administrazioek duten beste behar bat eta egoera horrek zailduko zuena, hots, Arartekoak eskatzen dituen "datu, dokumentu, txosten edo argibide guztiak ematea, lehentasunez eta premiaz" (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 23. artikulua).

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da eta hori gomendatu behar dugu, horri buruz sailak eta interesdunak izandako komunikazioak aurkitzeko kudeaketek arrakastarik ez izateko arrazoia ikertzea. Gainera, beharrezkoa da neurriak hartzea horrelako zerbait, baieztatzekotan, berriz ez gertatzeko.

3. Jarraian, sailak hurrek futbol-eskolan egon ahal izateko kirol anitza egin behar dutenaren eskakizuna oinarritzen du. Horretarako, Arartekoaren aurrean, kexagilearen idazkiei emandako erantzunetatik ondorioztatzen diren argumentu berak erabili ditu. Funtsean, azaldu du bestela ez zela beteko 69/2008 Foru Aginduaren 1. ataleko 3. artikuluan xedatutakoa, haxe adierazten denean





“Kirol hastapeneko unitateen irakaskuntza jarduerak udal, eskualde eta lurralde eremuko eskola kiroleko antolakuntzaren barruan egiten direnen osagarri izango dira eta ez haien ordeztuko; beraz, elkarren artean koordinatuta programatuko dira”.

Hala eta guztiz ere, indarreko araudia osorik aztertu ostean, bertan ezin izan ditugu identifikatu ikasleak haien ikastetxeko eskola-kirolean nahitaez izena emanda egoteari eta bertako jardueretan parte hartzeari lotutako baldintza jorratzen duten manuak. Erakunde honen ustez, ezin da urriaren 19ko 63/2007 Foru Arauko 3.1.i) artikulutik ondorioztatu, ezta futbolaren esparruan “hastapeneko unitateei” aplikatzea arautzen duen 69/2008 Foru Arauko 3. artikulutik ere. Xedapen horiek bakarrik ezarri dute unitateek euren jarduerak eskolako kirolaren testuinguruan burutzen diren jarduerekin koordinatuz programatu behar dituztela, baina ez da ezarri erabiltzaileek nahitaez jarduera horietan parte hartu behar dutenik.

Horixe ondorioztatu daiteke ez bakarrik hitzez hitz irakurriz, baita bi arauen xedeari erreparatuta ere. Izan ere, helburua “futbol eskolak” izenarekin ezagutzen diren horiek baimentzeko araubidea arautzea da, beraz, ematen du argi dagoela eskakizunak eskolentzat direla eta ez erabiltzaileentzat: Modu horretan, bermatu daiteke jarduera horiek eta eskolako kirol programaren baitan dauden jarduerak bateragarriak izango direla. Horrek esan nahi du programazioa modu koordinatuan egin behar dela, adibidez, ordutegiek bat egitea saihestuz. Halaber, eskolako kirolaren udal egiturara egokitu behar dira, ikasleek bai jarduerak batzuk, bai besteak egiteko aukera eduki dezaten, ez betebeharra. Eskola-kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuaren 12.3.e) artikulua horren inguruan xedatu duen eskakizunak helburu berbera dauka, hau da, ahalbidetzea eta ez behartzea.

Azkenik, gogora ekarri behar da 69/2008 Foru Aginduko zioen azalpenak, urriaren 19ko 63/2007 Foru Aginduak horren inguruan xedatutakoa bilduz, ezartzen duela hastapeneko unitateak izeneko horietan garatutako jarduerak ikasle guztiei zuzenduta daudela, kirola egiteko ahalmen gehiago edo gutxiago izan alde batera utzita. Horrek kasu honetan bezalakoetan defendatzen dugun interpretazioa indartzen du. Alegia, adingabeak parte hartu nahi zuen futbol eskolako jarduerak ez ziren 69/2008 Foru Agindu horrek 6. artikuluko b) idatz-zatian aipatutakoak, a) idatz-zatian jasotako irakaskuntzak edota jolas askekoak baizik.

Azken batean, eztabaida juridikoa ikuspegi kontu bat da. Izan ere, Arartekoaren ustez, eskolaz kanpoko jarduerak antolatu nahi dituzten erakundeek nahitaezko baimena lortzeko eska daitezkeen baldintzen esparrua agerian jartzen dute xedapen horiek. Ikuspuntu horretatik, logikoa da foru aldundiak teknifikazio unitateen klub antolatzaileei jakinaraztea aipatutako arauditik ondorioztatzen diren eskakizun guztiak. Hala ere, uste dugu beste interpretazio bat gehiago egokitzen dela zuzenbidera; interpretazio horrek, kexagilearen semearen egoera berak ematen direnean, zerbitzu horiek





erabiltzea ahalbidetuko du, horrek eskatutako terminoetan. Hala, gure iritziz, hitzez hitzekoa errespetatzeaz gain, interpretazio-irizpide teleologiko eta sistematikoekin hobeto etorriko da bat.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiari egina, kexagilearen semearen egoeraren antzekoan dauden adingabeek ikasleentzako kirol hastapeneko unitateetan garatutako jardueretan parte har dezaten, ikasle horien ikastetxeko eskola-kirolean izena emanda duten edo ez alde batera utzita.

Era berean, gomendatzen zaio komunikazioak aurkitzeko kudeaketek arrakasta ez izateko arrazoiak ikertzeko. Interesdunak eta sailak izan zituzten komunikazio horiek gai horri buruz; kexa/iradokizun bidean zeuden. Gainera, gomendatzen zaio kasu horretan beharrezkoak diren neurriak hartzeko, horrelako zerbitu, baieztatzekotan, berriz ez gertatzeko.

